# KOSTALDEKO IBILBIDEA

Euskaditik igarotzean, E9 "Europako Kostaldeko ibilbidea" mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinaleztatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121® "Talaia ibilbidea" Gipuzkoan, eta GR 123® "Bizkaiko Bira" Bizkaian.

# SENDERO LITORAL

*A su paso por Euskadi, el E9 "Sendero Litoral Europeo" se encuentra señalizado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR® 121 "Sendero Talaia" en Gipuzkoa y con el GR® 123 "Vuelta a Bizkaia" en el tramo vizcaíno.*




## GOMENDIOAK

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa…).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

## RECOMENDACIONES

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

*Planifica bien las etapas y adáptalas a tus posibilidades.*

*Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación…).*

*Respeta el entorno que visitas y al resto de senderistas.*


EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Ed. 2025


Ispasterren eta Laidako hondartzaren artean, Urdaibai itsasadarraren bokalean, landazabal atlantikoko eremuetan eta baso-plantazioetan barrena jarraitzen du Kostaldeko ibilbideak, eta Bizkaiko kostaldeko bi herri ederrenetatik igarotzen da: Ea, izen bereko ibaiaren bi ertzetan itsatsitako hirigunea, eta kostaldeko Elantxobeko hirigune pintoreskoa, itsaslabar baten gainean dagoena bere arrantza-portu txikiarekin.

*Entre Ispaster y la playa de Laida, en la desembocadura de la ría de Urdaibai, el Sendero Litoral continua intercalando el paisaje de la campiña atlántica, el paisaje forestal y la zona costera, donde descubriremos dos de las localidades más hermosas de la costa vizcaína: Ea, con su recoleto casco urbano pegado a ambos márgenes del río homónimo y el pintoresco pueblo costero de Elantxobe, encaramado a un acantilado sobre su pequeño puerto pesquero.*

21 km | 772 m | 6h 30' | MIDE 1-2-2-4




**MIDE**

1 Ingurunean arriskuak egon daitezke
*El medio no está exento de riesgos*

2 Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak
*Sendas o señalización que indica la continuidad*

2 Zaldibideko ibilaldia
*Marcha por caminos de herradura*

4 6 eta 10 ordu arteko ibilaldi jarraia
*De 6 a 10 horas de marcha efectiva*

**SEINALEZTAPENA**
***SEÑALIZACIÓN***

GR® 123

Ibilbidearen jarraipena
*Continuidad del sendero*

Norabide aldaketa
*Cambio de dirección*

Norabide okerra
*Dirección equivocada*

## Bidezatia / *Tramo*

## ISPASTER ▶ IBARRANGELU

km 0 **ISPASTER.** Euskal Herri Atlantikoaren landa-esentzia ezagutzera gonbidatzen du Ispasterrek. Bere auzoetan baserriak ikus daitezke han eta hemen, mendeetan zehar gauzatutako herri arkitekturaren erakusgarri, eredu gotiko zaharrenetatik hasi eta XVIII. mendeko eraikinekin buka. Herriko plazan hasiko dugu etapa, eta hegoaldera joko dugu, Santiago ermitaren bila. Baso-sailen artean, bideak Zarandoa auzora eramango gaitu, eta, Eako herrigunean sartu aurretik, Urtubiagako burdinolaren ondotik igaroko gara, eskualdean izan zen jarduera siderurgiko biziaren aztarna isila.

km 6,1 **EA.** Herrigunera iritsiko gara, Ea ibaiaren ondoko pasealekuari jarraituz. Bi ertzetan itsatsiak dauden etxe ederrek eta harrizko zubi politek kostaldeko herri txiki eta xarmagarri honetaz gozatzera gonbidatzen gaituzte. Hilerriaren gainetik doan ibilbideari jarraituko diogu, eta, zelai eta baserrien artean, antzinako errege-bideraren trazaduratik gora egingo dugu. Angelutxu eta Arboliz artean, hainbat aldiz zeharkatuko dugu BI-3238 errepidea, eta, azkenik, Ibarrangelura jaitsiko gara auzo-bide polit batetik.

km 0 ***ISPASTER.*** *Ispaster invita a descubrir la esencia rural de la Euskal Herria Atlántica. Sus barrios, con caseríos dispersos, permiten recorrer siglos de arquitectura popular, desde los ejemplos góticos más antiguos hasta las construcciones del siglo XVIII. Comenzamos la etapa en la plaza del pueblo y nos dirigimos al sur, en busca de la ermita de Santiago. Entre plantaciones forestales, el sendero conduce al barrio de Zarandoa y, antes de entrar en el casco urbano de Ea, pasa junto a la ferrería de Urtubiaga, vestigio silencioso de la intensa actividad siderúrgica que caracterizó a la comarca.*

km 6,1 ***EA.*** *Alcanzamos el casco urbano siguiendo el paseo junto al río Ea. Las pintorescas casas pegadas a ambas orillas y sus bonitos puentes de piedra invitan a detenerse y disfrutar de este pequeño y bonito pueblo costero. Continuamos el recorrido, que discurre sobre el cementerio y, entre prados y caseríos, asciende por el trazado del antiguo camino real. Entre Angelutxu y Arboliz cruzaremos varias veces la carretera BI-3238, para finalmente descender a Ibarrangelu por un atractivo camino vecinal.*




# KOSTALDEKO IBILBIDEA
# SENDERO LITORAL

EUSKAL KOSTALDEA COSTA VASCA

8

## ISPASTER ▷ LAIDA

Km 21 | 772 m | 6h 30´

E9

EUSKADI BASQUE COUNTRY



## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Hurbildu zaitez itsasaldeko Elantxobe herri pintoreskora, eta bista ederrak ikusi edo bertako arrantza-portu bereziaren edertasunaz gozatu ahal izango duzu goiko aldeko begiratokitik.

*Acércate al pintoresco pueblo costero de Elantxobe, donde podrás disfrutar de las vistas desde el mirador de la zona alta o de la belleza de su singular puerto pesquero.*





Bisita ezazu Atxarre tontorra. Bertan dago San Pedro baseliza ederra, eta Urdaibaiko itsasadarraren bokalearen panoramikarik onenetakoa ikusi ahal izango duzu handik. Dantzalekuko bidegurutze magikoan hartuko dugu bidea, eta handik kilometro erdi pasatxoko igoera hasten da, tontor xume horretara iritsi arte, artadi trinkoak inguratua.

*No dejes de visitar la cercana cima de Atxarre, donde se alza la bella ermita de San Pedro y desde donde podremos disfrutar de una de las mejores panorámicas sobre la desembocadura de la Ría de Urdaibai. El desvío se toma en el mágico cruce de Dantzaleku, y desde allí comienza una ascensión de poco más de medio kilómetro hasta alcanzar esta modesta cima, rodeada por el denso encinar.*

# Bidezatia / *Tramo*
# IBARRANGELU ▶ LAIDA

km 11 **IBARRANGELU.** Landagune txiki honetan, merezi du San Andres elizan sartzea. “Euskal kapera sixtinoa” deitzen diote, zur landu eta polikromatuzko ganga aparta baitu. Iparralderantz jarraituko dugu, eta Elantxobe arrantza-herri pintoreskora hurbilduko gara, baina ez gara bertara iritsiko, hara desbideratzea ia derrigorrezkoa izanik ere, eta Lagako hondartza ederrerantz abiatuko gara.

km 15 **LAGA.** Lagako hondartza Ogoño mendiko kareharriaren azpian dago, garai batean balea-talaia izan zena. Hondartza inguratuko dugu Laidarantz, eta, zati honetako kostaldeko saihesbidera iristean, trazadura nagusiak errepidea gurutzatzen du, Akorda landa-auzorako igoera handiari aurre egiteko. Handik, Atxarre mendia estaltzen duen artadian barneratuko gara. Dantzalekuko bidegurutzetik Kanalarantz jaisten hasiko gara, eta berriro itsasora hurbilduko gara; estuarioko bokalera iritsiko gara, Laidako hondartzaren parean, Arketako senadi ederraren ondotik igaro ondoren.

km 21 **LAIDA**

*km 11 **IBARRANGELU.** En este pequeño núcleo rural merece la pena entrar en la iglesia de San Andrés bautizada como la “capilla sixtina vasca” por su extraordinaria bóveda de madera tallada y policromada. Continuamos hacia el norte, acercándonos al pintoresco pueblo pesquero de Elantxobe, sin llegar a alcanzarlo, aunque el desvío es casi obligado, y dirigimos nuestros pasos hacia la hermosa playa de Laga.*

*km 15 **LAGA.** El arenal de Laga descansa bajo la mole calcárea del monte Ogoño, antigua atalaya ballenera. Bordeamos la playa en dirección a Laida y, al alcanzar la variante costera de este tramo, el trazado principal cruza la carretera para afrontar el fuerte ascenso al barrio rural de Akorda. Desde allí se interna en el encinar que cubre el monte Atxarre. Desde el cruce de Dantzaleku iniciamos el descenso hacia Kanala para acercarnos nuevamente al mar, alcanzando la bocana del estuario a la altura de la playa de Laida, tras pasar junto a la bella ensenada de Arketa.*

*km 21 **LAIDA***


Ibarrangelu


Arketa

## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Turismo bulegoak<br>*Oficinas de Turismo* | |
| Gernika-Lumo | 94 625 58 92 |
| Gernika-Lumo (whatsapp) | 646 347 553 |
| Lekeitio | 94 684 40 17 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- Bada saihesbide laburrago bat (GR® 123.1), Laida eta Laga hondartzen artean kostaldeko paisaiaz gozatzeko aukera ematen duena (3,2 km /+90 m).
- *Existe una variante más corta (GR® 123.1) que permite disfrutar del paisaje costero entre las playas de Laida y Laga (3,2 km /+90m).*

- Etapa honetan ez dago arreta etengabe ematen duen zentro medikorik, soilik kontsultategiak goizez, Ispaster, Ea, Ibarrangelu eta Elantxobe udalerrietan. Etengabeko arretagune hurbilenak dira Gernika-Lumo, Bermeo eta Lekeitio.
- *En esta etapa no hay ningún centro médico de atención continuada, sólo consultorios en horario de mañana en los municipios de Ispaster, Ea, Ibarrangelu y Elantxobe. Los puntos de atención continuada más cercanos son Gernika-Lumo, Bermeo y Lekeitio.*

- Gaur egun, hurrengo etapa, Laida-Sukarrieta, azterketa-fasean dago eta ez dago seinaleztatua. Uda-partean ferry bat ibiltzen da Laida eta Sukarrieta artean. Garai horretatik kanpo, Bizkaibus zerbitzua hartu behar da Gernikara joateko, eta handik Sukarrietara, autobusez edo trenez.
- *Actualmente la siguiente etapa, Laida-Sukarrieta, está en fase de estudio y no se encuentra señalizada. En época estival un ferry opera entre Laida y Sukarrieta. Fuera de esta época será necesario utilizar el servicio de Bizkaibus a Gernika, y de aquí a Sukarrieta, en autobús o tren.*


Laida

